

JARRAIBIDEAK ETA EKARRI BEHARREKO DOKUMENTUAK

LEHEN ESKAERA EGITEKO EDO BESTE MOTA BATEKO TXARTEL BERRIA ESKATZEKO:

TXARTEL ARRUNTA: Inprimakia behar bezala beteta / Argazkia (lehen eskaeran soilik) / NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia. Adingabekoa izanez gero, adin txikikoaren NANaren fotokopia (baldin badu) edo familia-liburuaren fotokopia (adingabekoaren datuak dituen orrialdea) eta tutorearen NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia.

TXARTEL HOBARIDUNA:

- Egiaztatuko da Gipuzkoan erroldatuta egotea.

SALBUESPENA: Gipuzkoako edozein herritan pasaportearekin erroldatu direnen kasuan, aurkeztu beharko da errolda-ziurtagiria, azken hiruhilabetekoan egindakoa.

- Txartel hobaridun eskaerei eta berritze eskaerei Foru Ogasunean Errenta maila egiaztatuko zaie: **2,5 aldiz IPREM adierazlea (16.947,00€ banakako aitorpenean eta 33.894,00€ baterako aitorpenean) gaudituz gero, txartel arrunta bidaliko da.** Bi salbuespenetan errenta ez da begiratuko: 18 urte beherako txartel hobaridun eskaerak eta Familia Ugari orokorren edo berezien eskaerak, kasu hauetan hobaria duten beste txartelekiko konbinaziorik gabe.
- Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikaren Departamentuan Desgaitasun-txartelaren (E) eskatzaileei egiaztatuko zaie desgaitasun gradua %65 edo gehiagokoa edo Mugikortasun baremoa 7koa edo gehiagokoa dutela.
- Familia Ugariaren kasuan egiaztatuko da Eusko Jaurlaritzan / Gipuzkoako Foru Aldundian Familia Ugariaren titulua indarrean dagoela. *Familia Ugariaren titulua pasaporte zenbakiarekin atera duten familiak, tituluaren fotokopia aurkeztu beharko dute.
 - Gazteak (6 urtetik 25 urte betetzen duten egunera arte):** Txartel arruntaren dokumentazio bera.
 - Adinekoak (65 urtetik gora):** Txartel arruntaren dokumentazio bera.
 - Ezinduak:** Txartel arruntaren dokumentazio bera.
 - Soziala:** Txartel arruntaren dokumentazio bera. **Horrez gain,** txartel soziala eskatu ahal izateko norberaren egoeraren arabera aurkeztu beharko dira dokumentu hauek:
 - Lanik egiten ez duen 65 urtetik beherako erretiroduna eta erretirodun partziala duena, lanik egiten ez duen 55 urtetik gorako ezintasun iraunkor Osoko Pentsioduna, Erabateko Ezintasun Iraunkor Osoa eta Erabateko Ezintasun Handiko Pentsioduna, lanik egiten ez duen alargun-pentsioduna, lanik egiten ez duen Alargun-Pentsioduna, lanik egiten ez duen Kotizatu Gabeko diru-sarrera edo gutxiago jasotzen duen Pentsioduna, Senideen aldeko pentsioa, Ardurapean hartutako Adin txikiko edo seme-alaba bakoitzeko laguntza ekonomikoaren titularrak edo eragilea: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak** egindako jatorrizko ziurtagiria edo baliokidea, hilabete batetik beherako epean egindakoa. Eskatu nahi den txartelak lanik ez egitea eskatzen badu, **horiez gain** aurkeztuko da egungo lan-bizitzaren ziurtagiria, hilabete batetik beherako epean eginda.
 - Gizarte Larrialdiko Laguntzaren (GLL) titularrak edo onuraduna:** Laguntzaren jatorrizko ziurtagiria, hilabete batetik beherako epean dagokion **Udalak** egina.
 - Kotizazio Gabeko Pentsioa (KGP), Gizarte Ongizateko Fondoa (GOF), Desgaituak Gizartean Integratzeko Legearen (LISMI) prestazioa eta Gizarteratzeko laguntzen titularrak:** Gipuzkoako Foru Aldundiko **Gizarte Politikako Departamentuak** egindako laguntzaren jatorrizko ziurtagiria, eta hilabete batetik beherako epean luzatua.
 - Diru-sarrera Bermatzeko Errentaren (DBE) titularrak edo onuraduna:** laguntzaren jatorrizko ziurtagiria, **Lanbidek (DBE)** egina, eta hilabete batetik beherako epean luzatua.
 - Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) emandako diru-laguntzetako baten titularrak edo Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren titularrak (GEA):** diru-laguntzaren jatorrizko ziurtagiria **INEMek** hilabete batetik beherako epean egindakoa.
 - Familia ugaria:** Txartel arruntaren dokumentazio bera.

GGLAk erabiltzaileari egokitzen jotzen duen informazioa eskatzeko eskubidea gordetzen du.

GAINERA, HONAKO KASU HAUEAN:

- ESKATZEN DENAREN MOTA BEREKO TXARTELA GALDU / OSTU / HAUTSI IZANEZ GERO:** Besterik gabe, formularioa behar bezala beteta eta NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia. Adingabekoaren kasuan, horrek NANA badu, horren fotokopia, eta ez badu familia-liburuaren fotokopia (adingabekoa agertzen den orrialdea), baita tutorearen NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia. Txartela galdu/hautsi edo mota bereko Lurraldebus txartela izanda, Mugi eskatzeak aurreko txartelaren baja sorraraziko du. Txartela hautsi bazaizu, eskabidearekin batera entregatu.
- TXARTEL AKASTUNA BALDIN BADA, ERABILTZAILEAK ERRURIK IZAN GABE.** (* Ez dira 5 euro ordaindu behar, kasu honetan berariazko formularioa erabili):
 - Inprimatze-akatsak: Harremanetan jarri GGLAren; akatsa zuzenduko zaizu eta txartel zuzena jasotzean akastuna entregatu beharko duzu (6 hilabeteko epean jaulki zenetik).
 - Txartela ez da erabilgarria: Txartela salmenta-puntuari entregatu, eta labor adierazi zerk huts egiten duen; saltokian bertan jasoko duzu txartel berria (4 urteko berme-epea).
- ADIERAZITAKO TXARTELA IRAUNGI IZANAGATIK BERRITZEA** (Ez da txartela itzuli behar):
 - Mota bereko txartela eskuratzeko argazkia izan ezik behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.
 - Eskabidea bete zenuenetik **zazpi lanegun** pasa eta gero, eskatu iraungipen-data eguneratzea sareko edozein saltokitan edo Kutxabankeko edozein kutxazainetan (ez da beharrezkoa bezero izatea, ez du komisiorik kobratzen). Data berria txartelaren txipean erregistraturik geratuko da, eta emango dizuten frogagirian egiaztatuko duzu.